

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Fase aldaketa Nafarroan PELLO OTXANDIANO > 9

2019ko abuztuaren 3a | XIII. urtea • 631. zk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



BIZITZA ONA EHUNTZEN > 4



Jendarte eredu aldatzeko ekina
Guatemalan, euskal eragileek
partekatua 04


Uda Gazan: umeak, morteroen
bonbak jasotzen 07

Publizitatean emakumea
ahalduntzeak saldu egiten du 10

Sarean 12

Elkarrizketa: Imanol Galdos 18

Juantxo Egañaren behatxulotik 23



SINADURAK:

- 03 **Maite Ubiria:** Bazen behin zirkua...
- 08 **Ander Gortazar Balerdi:** Irteera opari dنداتik
- 09 **Pello Otxandiano:** Fase aldaketa Nafarroan
- 13 **Alai Zubimendi**
- 16 **Gorka Zozaia:** Kosmosa ezagutzeko teleskopioak eta kameleoiak
- 17 **Iker Barandiaran:** Ezker txarrekoak
- 21 **Maidar Iantzi Goienetxe:** Mugimenduan
- 21 **Xabier Mikel Errekondo:** Donostia galbidean
- 22 **Garazi Goia:** Sinetsi edo ez sinetsi



{ datorrena } **Maite Ubiria Beaumont**

Bazen behin zirkua...

Herri txikitan ezartzen dute karpa marra-duna gehienetan. Zirkuitu ofizialen bi-dezidorretatik heltzen dira, kulturaren amazonizazioari itzulipurdi harrigarri batekin erantzunez, merkantilizazio arautegiari trufa eginez, sudur gorria ipinita. Furgoneta eta karabana, lehena herriko karri-ken gaindi bozgorailuz ondorengo funtzioa iragartze-ko, bigarrena txiki zein handi liluratzeko gai izanen di-ren artisten bizitzak, beraien poz eta tristurak, gordeta atxikitze-ko.

Diru publikoarekin olioizatutako makrokontzertuen eta babestutako ikusgarrien makinatik at, belar zabalgune batean, xarmarik gabeko aparkalekuan edota bigarren edo hirugarren mailako plazan, udako gau epe-lean foku bat piztuko du zirkua. Pistaren gainera arreta eramanez, itzalean geldituko dira, funtzioak iraun bitartean, zutik iraute-ko gainditu behar izandako traba eta estutasun guztiak.

Zirkuaren magia berritze-ko izerdi handia bota behar da, globalizazioaren gezu-rrak palakada irentsi dituen jendarte hiperkonektatuak mespretxuz hartzeko arris-kua hartzen baitute bide er-tzetan oreka zailak proposa-tzen dituzten lagunek.

Teknologia berrien laguntzaz egiturazko bortizkeria eguneroko paisaian txertatu duen gizarteak, kasu asko-tan aparteko izpiritu kritikoa garatu gabe, orotariko arautegien laguntzaz marraztuko den eskusio zahar eta berrien maparen berme gisa jardunen du batzuetan.

Uda hasieran, bidaiak jendeen karabanek asalatu zu-ten Ipar Euskal Herriko zenbait herritako udal aginta-rien egunerokotasuna. Debekuak eta kanporatzeko aginduak nonahi, gure artean egun batzuk baizik ez di-ren izanen herritar nomadak uxatzeko. Turismo ardu-radunek eskainitako bilana eskuan harturik, 2018an Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeetan bisitariak 25 mi-lioi gau igaro zituzten. Bisitari gehienak, bistan da, uda-

ko hilabeteetan heldu ziren. Batez besteko azkarra egi-nez, egunero 615.000 bisitari hartu zituen 300.000 biz-tanle inguru dituen lurralde eremuak. Zifrak begiratu-ta, zilegi dirudi galderak: benetan badira arrazoiak «arazo handi» bezala bizitzeko eta tratatzeko ehunka ijito erromesen joan-jin horiek?

Urtero bezala, etorri zirenak joan dira jada. Berdin da, G7aren goi bileraren atzerako kontaketa piztu den hone-tan ertzetara begira jarri gaituzte, beste behin ere, pai-saia ofizialarekin bat ez datorren horrengana aurreiri-tziz edo, nahiago bada, eraikitako iritziz begira dezagun.

Nomadak badira, gaizki, zirkuko jendeak badira, zer esanik ez. Oraingoan karpa marradunak irudikatzen du arrisku soziala, oraingoan munduko ikusgarriarik zaha-rrenaren oihartzuna gero eta ahulago eramaten dute-nek irudikatzen dituzte gaitz guztiak. Non eta Lapurdi-

Uda hasieran nomadak izan ziren
arazo, oraingoan zirku txikietako
jendeak... non eta Lapurdin, noiz eta
G7ak euskal lurraldea asaltoan
hartuko duen gailurraren atarian

ko kostan, noiz eta lanak abian direnean Biarritzen eta inguru zabal batean gure lurraldea asaltoan hartuko duten mandatariak aterpetzeko –eta herritarren hase-rreaz kosta ahala kosta babesteko–. Milioika herritarren etorkizunari buruzko erabakiak hartzen dituzten agin-tariak, demokrazia autoritarioaren sustatzaileak, plane-taren baliabide eta bizitzaren zurgatzaileak bortxaz ja-betuko dira Euskal Herriaz, debekuak zabalduz eta askatasun murrizketak ezarriz. Hiri bat hesituko dute, errepideak moztuko dituzte, hamaika eguneroko jar-duera baldintzatuko dituzte. Inork ez dezala, bederen, zirku hitza arinkeriaz erabili larrutik ordainduko dugun espektakulu tamalgarria izendatzeko. •

BIZITZA ONA EHUNTZEN

Euskal eragileak Guatemalan, jendarte eredua aldatzeko ekina konpartitzen

Ekainaren 29tik uztailaren 7ra, “Tipi-tapa bagoaz” kanpainaren barrenean, Euskal Herriko talde bat Guatemalan izan zen eraldaketa soziala lortzeko lan egiten duten bertako elkarte eta mugimenduetako kideekin. Edurne Gallo eta Unai Gondra Desazkundera eta Bizitza Onaren Sareko lagunek fresko dute bidaia eta bertako berri kontatu diote GAUR8ri.

«Guatemalara heldu ginenean, lehenengo egunean, memoria historikoaren aldeko martxan parte hartu genuen. Militarren eguna ere bazen eta militarren martxa ere egin zen. Guatemalaren irudia nahiko argi adieraz dezakegu hala», hasi da Gondra azaltzen. «Garbi ikusten da herrialdea oso militarizatua dagoela eta huts egindako estatuaren egoera oso presente dagoela biztanleen artean».

Gallok erantsi du benetan herrialde ederra dela, jendeak primeran hartu zituela, baina

indarkeria bortitza jasaten ari direla. «Hauteskundeak bigarren bueltan daude uneotan [datorren abuztuaren 11n bozkatzeko dute] eta nahiko etorkizun negatiboa espero dute, baina jendearen erresistentzia eredugarria da, hona ekartzekoa. Indar handia jartzen zuten kolektibotasunean. Gauzak aldatzeko beharrezkoa da denok biltzea, salatzea eta eskatzea».

Pobrezia ikaragarri latza dela ere ikusi dute. «Geroz eta handiagoa da eta, dirudienez, hala jarraituko du». Hautes-

 **JENDARTEA** / Maider Iantzi Goienetxe

Guatemalara bidaiatuko dugu erreportaje honetan, handik etorri diren bi lagun euskaldunekin. Unai Gondra eta Edurne Gallo Bizitza Onaren Sareko kideak dira. Bizitzaren jasagarritasuna erdian jarri eta desazkundera josten aritu dira Guatemalako kideekin, hori baita eurentzat bidea, behar duguna era orekatuan lortzea.

Besteak beste, Ehuleen Elkarte Nazionalako kideekin elkartu ziren euskal eragileak. DESAZKUNDEA ETA BIZITZA ONAREN SAREA

kundeen bigarren bueltara pasatu diren bi alderdiak eskuindarrak dira, «bata eskuinekoa eta bestea askoz ere eskuinekoagoa». Orduan, gauzak aldatzeko ez du erraza ematen, baina, Bizitza Onaren Sarekoek baieztatu dutenez, erresistentzia oso handia da, batez ere kalte gehien jasateko arriskua duten pertsonen aldetik, bai indigenak eta baita emakumeak ere.

Elkarte mota ezberdinekin bildu dira: emakumeen ahal duntze prozesuak bideratzen dituztenak, indigenen eskubiak berreskuratu eta duinta-

sunak eman nahi dietenak, kulturaren defentsa egiten duen Ehuleen Elkarte Nazionala (Asociación Nacional de Tejedoras), Ciudad de Guatemalan giza eskubideen legezk defentsa egiten duen zentroa...

Azken horrek, adibidez, Efrain Rios Montt kondanatzeari lortu zuen. Genozidioagatik kondenatutako lehenengo presidentea da. «Azkenean ez zen kondenatu gauzatu, baina, halere, eredugarria da». Lurra- ren, baliabideen eta naturaren defentsarekin harremana duten erakunde ugariarekin ere elkartu dira.

«Izenak oso zailak dira esaten. Gehienak maiak dira, baina maien 22 komunitate eta 22 hizkuntza daude», azaldu dute.

BIZIMODU ZENTZUGABEA

Desazkundera eta Bizitza Onaren Sareko kideek egiten duten hausnarketa da gure bizimoduak ez duela zentzurik ez hemen eta ez inon. «Hemen gaixotasun asko garatzen ari dira, estresarekin bizi gara... Denok dakiguna. Baina pen-



tsatu behar dugu ispiluaren beste aldean zein dagoen eta zein ari den gu horrela bizitzeko bizi ezinean», agertu du Edurne Gallok.

Gogoeta horretatik, beren proposamena, koherenteena ikusten dutena, desazkunderen bideari segitzea da: «Bizitzeko behar dena lortzea era orekatuan, kontsumismo, kapitalismo, patriarkatu eta arrazakeriatik edaten duten eredu guztietatik at». Alegia, material gutxiago kontsumitzea eta pertsona eta kolektibo gisa gehiago garatzea.

Horri deitzen diote “bizitza ona”. «Europar edo Mendebaldeko munduan beti pentsatzen dugu aurrerapena, garapena, teknologia oso ona dela, baina nora goaz? Ez dakigu». Hausnarketa hori egin behar dela uste du Gondrak. «Kosmobisio mailan garbi ikusten da zer den benetan garrantzitsua bizitzarako: haizea, ura, landareak, lurra... Autonomia izatea fisikoki, politikoki zein ekonomikoki».

NATURAREKIKO HARREMANA

Gallok gaineratu duenez, zer den beharrezkoa eta zer den zaindu behar dena hartu behar da kontuan. «Ez da bakarririk ura behar dugula bizitzeko; ura gara. Naturarekiko harremana oso presente egon da beren ekarpenetan».

«Maiak izanda, beren kosmobisiotik, oreka, bizitzaren jasagarritasuna, erdian jartzen dute; eta, nolabait, bizitzeko denak orekatua egon behar badu, guk hori errespetatu eta zaindu behar dugula ulertzen dute».

Ura aipatuta, enpresa hidroelektriko dezente dago Guatemalan eta enpresa horien jardunak ondorio negatiboak eragiten dizkie maiei. Adibi-



dez, Cementos Progreso Sultzako kapitela duen enpresa multzoa San Juan Sacatepequez-eko komunitatean ezarrita dago. «Basogintza egiten dute, errepideak, meatzeak... Horren ondorioz, hoguei egunetik behin ordu erdiz soilik zeukaten ur korrontea biztanleek. Argi ikusteko Estatuak nola aprobetxatzen duen egoera hori, Estatuak berak kudeatzen du ura. Hara joan eta saldu egiten du».

Maiak izanda, beren kosmobisiotik, bizitzaren jasagarritasuna erdian jartzen dutela ikusi dute. Irudian, Edurne Gallo eta Unai Gondra bertakoekin. DESAZKUNDEA ETA BIZITZA ONAREN SAREA

Ikaragarritzko porlan fabrika handia da, 70 kilometro karra-tuko espazioa hartu du eta ustiapena 100 urtekoa da. «Ondorioz, hasteko, bertako komunitateek ezin dute orain arte izan duten ura erabili, ez gauzak garbitzeko ezta edateko ere. Horrez gain, beren lurretatik bota dituzte, erabiltzen zituzten bideak moztu dituzte. Jendea kriminalizatu, atxilotu eta, sarri, akabatu ere egin dute porlan fabrikaren

mesedetan. Horrek denak Gobernuaren oniritzia dauka eta transnazionalen onurarako Armada bertara joan eta indarkeria guztiak martxan jartzen dituzte, baita emakumeen kontrako sexu indarkeria ere. Jendea kartzelan dago eta jendea hil egin dute», azpimarratu du Edurne Gallok.

INPUNITATE OSOZ

Zer gertatzen da horrekin? «Inpunitate osoa dago». Ez dago inolako babesik herritarrentzat. «2008an eta 2014an prebentzio estatua jarri zuten San Juan Sacatepequez-en eta berez setio estatu bat izan zen», oroitu du Gondrak.

«Eskubideak mugatu zituzten. Militarrek emakumeak bortxatu zituzten. 15 eguneko prebentzio estatua egon zen 2008an eta 45 eguneko 2014an». Eta bitartean, porlan fabrika gero eta gehiago handitu zen. «Niretzat ikaspen handi bat izan da Mendebaldeko

INDIGENEN BEGIEKIN GRABATUTAKO FILMA

Red Tz'ikin errealizadore independenteen sarearekin elkarlanean ibili ziren euskaldunak Guatemalako bidaian eta dokumental bat plazaratuko dutela iragarri dute. «Ez dakigu noiz, ez dakigu nola. Baina 15-20 minutuko ikus-entzunezkoa izango da eta elkarrizketak eta irudiak bilduko ditu», agertu du Unai Gondrak.

Edurne Gallo kideak gaineratu du Red Tz'ikin hedabide indigena dela eta beren

ikuspuntutik egindako dokumentala izanen dela. Hori inportantea da Desazkundera eta Bizitza Onaren Sareko lagunentzat.

«Gure elkarrizketak aterako dira, eta ezagutu ditugun elkarte guztietako testigantzak ere bai. Horietan ikusiko da hemen, Euskal Herrian, egiten dugun guztiak nola eragiten duen munduko beste herrialdeetan, ikuspuntu 'global' hori nola ematen den», adierazi du Gallok.

deko bizimodu honek, gero eta gehiago erosi, dena azkar... horrek guztiak nola eragiten duen munduko beste latitude-etan. Zergatik Guatemala? Eredu delako honetan. Nola sartu den neoliberalismoa eta horrekin emakumeen kontrako indarkeria, patriarkatua... Horregatik erabaki genuen bertara joatea. Triskantza izan delako natur baliabideetan eta kulturalki ere bai», adierazi du Gallok.

KULTURA ERRESPEITUZ PARTEKATU

Adibidez, *huipil*-a da beren jantzi tradizionala eta orain modan dago. Hortaz, HM eta bertze multinazional batzuek saltzen dute. «Baina guk ez dakigu zer dagoen jantzion atzean. Eurek esaten ziguten espainolek erre ezin izan ez zituzten liburuak direla. Beraien kultura oihalon bidez transmititzen da eta euren ustez hori ez da merkatura ateratzeko zerbaite, kultura errespetatu eta partekatzeko zerbaite baizik», nabarmendu du.

«Kulturari, baliabideei eta giza eskubideei begira, gu hala bizitzeko beste batzuk eta natura ere gure mesedera eta errespeturik gabe erabiltzen dugu, eta ez dugu horren kontzientziarik», gaineratu du.

Herritar bezala ardura zati handia dugula pentsatzen du Edurne Gallok. «Gu horrela bizitzeko esklaboak ditugu beste lurraldeetan. Bortitza da hitz hori erabiltzea, baina horrela da». «Guatemalan hau gertatzen da kapitalak mugitzen direlako, eta kapitalak nola mugitzen dira? Nazioarteko itun bat baldin baduzu Europatik Guatemalarako kapitalak baldintzatzen dituen, Guatemalara joango dira inpunitate osoarekin. Horregatik, tratatuak nola egiten diren zaindu



behar dugu, tratatueta hiltzarmenak betetzen diren... Erantzukizun bat badugu horretan», erantsi du Gondrak.

TXIKITIK ZER EGIN

Norbaitek pentsa dezake handi samarra gelditzen zaiola hori guztia edo norberak bere txikitasunetik zer egin dezakeen horren aurrean.

Gallok agertu duenez, «oso zaila eta oso erraza» da aldi berean. «Alde batetik politikoki eragin behar dugu, oso on-

Memoriaren Eguneko martxan parte hartu zuten euskaldunek. Militarren eguna ere bazen eta militarren martxa egin zen. Eskuineko argazkian, ehule bat lanean. DESAZKUNDEA ETA BIZITZA ONAREN SAREA

Hauteskundeak bigarren bueltan alderdi bat eskuinekoa da eta bestea eskuinekoagoa. Baina erresistentzia handia da, bereziki kalte gehien jasan dezaketenena, indigenak eta emakumeak

«Huipil»-a da beren jantzi tradizionala. Modan dago eta HM eta bertze multinazionalak saltzen dute. Indigenentzat jantziok «espainolek erre ezin izan zituzten liburuak dira»



do jakin zeini bozkutzen diogun eta nola, eta kalean egon salatzen eta aldarrikatzen. Bestetik, egunerokotasunean egiten ditugun gauzen gainean kontzientzia hartu behar dugu: non erosi, erosi behar dugu edo trukean lortu...».

Adibidez, palma olioak gure produktu guztietan dago eta Guatemalan olio palmondoaren monolaborantza arazo handia da. Kutsadura izugarria eragiten du. Uraren ustiapena ere aipatu dugu lehen. Horren gainean pentsatzera gonbidatu gaituzte Bizitza Onaren Sarekoek: «Horrelako produktuak erosiko ditut edo badut beste mota bateko produktuak erosterik? Benetan erosi behar ditut edo beste modu batean lor ditzaket? Hemen badira alternatibak: baserritarren produktuak, ahalik eta gertukoenak, kontsumo taldeak... Nahiz eta tontakeria bat dirudien,

denok horrela egingo bagenu, gauzak aldatuko lirateke».

KOLONIALISMOA, OINARRIAN

Honen guztiaren atzean kolonialismoa dagoela oroitu dute. Memoriaren Eguneko manifestazioan eta Memoriaren Etxean egon ziren eta azken horretan kolonialismoa gogoratzen zuten, zer izan zen bere garaian kultura maia eta espainolak iritsi zirenean nola hil zuten bertako jendea eta nola beste asko eta asko esklabotzat hartu zituzten.

Horrek arrazakeriaren egiturazko indarkeria jorratzea ekarri zuen. Kolonialismoarekin lotzen dituzte beraiek arrazakeria, kapitalismoa eta emakumeen zapalkuntza. Hor jartzen dute iturria. Gaur egun, nahiz eta beste tresna batzuekin izan, oraindik indarrean dagoela frogatu dute Unai Gondrak eta Edurne Gallok.



Said KHATIB | AFP

IKUSMIRA

UDA GAZAN: UMEAK, MORTEROEN BONBAK JASOTZEN

Palestinako herritarren eskubideak ez dira munduko agintarien gailurretan inoiz aztertzen, asko egiten badituzte ere. Eta egoera gero eta ustelagoa da. Sei urteko ume bat ere etsaitzat hartzen dute soldadu okupatzaileek eta aurki Qais Firas Obaiden aitak esplikazioak eman beharko dizkie «ikerlariei»: zergatik bota zien semeak tetrabrik huts bat Israelgo soldaduei? Muhammad Rabi Elayyanek egun bat lehenago egindako «delitua» larriagoa da: harriak bota zizkien israeldarren ibilgai-luei, tetrabrik hutsa bota beharrean. Azken kasu horretan, «gaizkileak» lau urte baino ez ditu. Bere aitak ere esplikazioak eman beharko dizkie lurralde haietan beren ordena ezarri nahian dabiltzanei. Ia ordu berean, Armada okupatzaileak Gazako puntu bati eraso egin zion tankeak eta morteroak erabilia. Ondoren haurrak hurbiltzen dira, Said Khatiben argazkian ikus daitekeenez, lehertu gabeko «jostailuak» jasotzera. Nor aberasten da «jostailu» horiek egiten? joseangel.oria@gaur8.info



Ander Gortazar Balerdi - @andergortazar
Arkitektoa

Irteera opari dendatik

Ba n k s y k , 2010eko «Exit Through the Gift Shop» filmean, artearen eta merkatua-
ren arteko harreman gataz-
katsua jorratu zuen izenbu-
ru aski premonitorioarekin:
«Irteera opari dendatik».

Bada esaten duenik opari dendak museoaren beste edozein aretoren moduan ulertu behar direla, kasik epilogo lez. Interesgarria litzateke museoan handitze proiektuak hartu, neurtu, eta ikustea zenbat metro karratu berri eskaini zaizkien erakusketa aretoei eta zenbat opari dendei. «Museoetako opari denda onenak», ranking dezente dago Interneten.

Museoen handitze proiektuak ere badira, bere horretan, artearen eta merkatua-
ren arteko tentsio eta kontraesanen isla. Alde bate-
tik, arte produkzioak eta erosketek gora egin ahala, lo-
gikoa da museoan erakusketa azalera ere handitzea; beste-
tik, badirudi museoak ere sartu direla merkataritza gune-
ek ondo islatzen duten logika garaikide horretan, zeinak
obsoleto bihurtzen zaituen “X” urtean behin itxuraldatu
ezean. Berritu ala hil.

Egiari zor, Europako museo handiak etengabe handitu
dira haien sorreraz geroztik. Eraikin-hegal berriak sortuz
egin dute hori historikoki, simetria lortuz batzuetan, si-
metria hautsiz bestetan, betiere lengoaia klasikoa erabiliz
(horregatik, gure begirada garaikide tranpatitik, eraiki-
nen fase klasiko guztiak batasun baten moduan ulertzen
ditugu maiz). Azken mende erdian aldatu da dena, lengo-
aia berrien eta zaharren arteko kontrastea handiagoa de-
lako, eta museoan handitze proiektuen tipologiak ere bi-
derkatu egin direlako: eraikin satelite bidez handitu
diren museoak (El Prado museoaren Los Jerónimos erai-
kina, Rafael Moneo, 2007), hegal xume garaikideak gehi-
tu dituztenak (British Museum museoko kontserbazio
eta erakusketa hegala, Rogers Stirk Harbour, 2014), lurpe



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

an handitu direnak (Louvre museoko sa-
rrera-piramidea, Ie-
oh Ming Pei, 1989),
eraikin zaharberritu
batera lekualdatu di-
renak (Tate Modern,
Herzog & de Meu-
ron, 2000)...

**Azkenaldian, baina, estrategia formal bat boladan dagoe-
la dirudi: jatorrizko eraikina eklipsatze-
raino oihu egitea.** Herzog & de Meuro-
nek euren diseinu propioa neutralizatu dute New Tate Mo-
dern eraikinaren bi-
dez, handitze propo-
samenarekin OMAk Sanaaren New Mu-
seum indargabetuko duela dirudi, eta Dresdeneko historia militarren museo-
an Libeskindek izotz-
labankada batez

hausten du jatorrizko eraikin klasikoa, «hemen nago ni,
egin iezadazue kasu» esanez bezala. Intuizioa: ez ote diren
handitze proiektu efektista hauek iraungitze data hurbile-
na dutenak.

Irudipen hori izan dut Bilboko Arte Ederren Museoa
handitzeko lehiaketaren proiektu irabazlea ikusi dudane-
an. Aurreko handitze proiektua diseinatu zuen arkitektoa-
rekin (Luis Maria Uriarterekin) lan egiteak ematen dion le-
gitimitate estrarekin, Norman Foster britainiarrak
jatorrizko sarrera nagusia berreskuratu eta pieza harriga-
rriki arin bat proposatzen du egungo museoaren gainean.
«Errespetuz», argitu dute, *excusatio non petita*-ka ia. Esan-
go nuke museoak berak ez duela lehiaketaren formatuare-
kin asmatu, baina, tira, hori beste sagardotegi bat da.

Edonola ere, Foster eta Uriarteren proiektua ikusgai da-
go Arte Ederren Museoan bertan beste bost proiektu fina-
listekin batera (Sanaa, Nieto y Sobejano, BIG, Snohetta eta
Moneo), urriaren 6ra arte. Irteera, gaur-gaurkoz, opari
dendatik pasa beharrik gabe. •

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

Fase aldaketa Nafarroan

Espainiako gobernu osaketa saio frustratuak eman du zeresanik. Egia esan espetakulu zinez tamalgarria izan da edonondik begiratuta ere, parlamentarismorik okerreana. Zerbait agerian gelditu bada Espainiak koiunturaren kudeaketa prekarioenean jarraitzen duela da, oinarritzko adostasunak urruti daudela estatu-krisiaren kudeaketa molde baterako. Izan ere, sistema politikoaren ezegonkortasuna krisiaren beste adierazpen bat da. Sanchezek berak iragarri zuen udazkena bero datorrela: Brexita eta buruzagi independentista katalanen kontrako epaia. Gaur, ez dirudi Podemosek Portugaleko gobernugintza molde onartuko lukeenik, eta, Nafarroako gobernu osaketaren ondoren, ezinezkoa dirudi PP edo Ciudadanos abstenitu daitezkeenik. Hauteskunde berri batzuen atarian egon gaitezke beraz, klima baino beroago datorren udazken honetan.

Independentismoak ondo irakurri behar du garai hau: zer diren XXI. mendeko gizarteak eta nolakoa den estatuen krisia. Posizioen gerran burua hotz behar du irabazitako lubaki bakoitza bermatu eta lubaki posible berrien bila abiatzeko. Aste honetakoak dira Boris Johnson eta Nicola Sturgeonen arteko bilera eta Sinn Feinen deia erreferendum baterako. Burujabetzaren eztabaida erdigunean da krisi-aroan. Euskal gizartearen dekantazio independentistarako baldintza objektibo inoiz ezagutu gabeak bil daitezkeen fase historiko baten atarian egon gaitezke. Horregatik, inoiz baino gehiago, pragmatismo iraultzaileak gidatu behar du euskal independentismoa. Ez baita jauzi kualitatiborik izango pazientziaz eta sistematikoki egindako lanik gabe. Badu zeregina estatuengandik etorriko diren frustrazioak ondo kudeatzen eta oinarri programatiko eta sinbolikoak berritzen.

Norabide horretan, EH Bilduk Nafarroan hartutako erabakiak heldutasuna adierazten du. Erabaki zaila zen, inteligentzia emozional handia eskatzen zuen zurrunbiloaren erdian eztabaida sosegatu bat egiteak,

eta seriotasunez eta txukun hartu da erabakia. Gobernu honen osaketarekin beste fase bat irekitzen da, orain arteko bidearen segida oparoa izan daitekeena, beti bezala, gauzak ondo egiten asmatzen bada, noski.

Gaur bitan banatzen da Nafarroako joko-zelai politikoa: batetik, esparru dei dezagun progresista, eta, bestetik, eskuin espainiazale erreakzionarioa. Hauxe da azken urteetako borrokaren emaitza behinena, konkistatutako lubaki bat: erregimena puskatu egin da. Gaur, PSNk ezin du UPNrekin lerratu hautu nabarrista espainiazale erreakzionario baten alde. Aitzitik, behartuta dago hain justu eskuin erreakzionarioaren parez pareko hautu bat lideratzera bazkide berriekekin. Ondorioz, eskuin erreakzionario hori Ciudadanos eta VOXekin lerratu da estrategikoki erabili duen eta hegemonikoa izan den diskurtso foralista bera auzitan jarritz. Eta hori konkistatutako lubaki bat da, ezbairik gabe, EH Bilduren erabakiak bermatu egin duena.

Aldaketak gizartean neurtu behar dira, hegemoniaren lehia borroka kulturala baita. Orain arteko bideak eman du emaitzarik, aukera berriak sortu ditu. Eta, ondorioz, aldaketa-erregimena markoa agortu egin da, eman du eman zezakeena. Orain, konkistatu beharreko lubaki posible berriak definitzeko garaia da. Hegemonia nafar aurrerazale-soberanista-errepublikano berri baten eraikuntzarako kanpaleku nagusia jarri bada, orain lehen kanpalekua non jarri nahi den pentsatzeko garaia da.

EH Bilduk posizio pribilegiatua izan dezake gobernu berriaren osaketarekin marraztu den joko-zelai honetan. Sarritan erabili du “hanka bat instituzioetan eta beste bat kalean” lema; bada, datozen lau urteetan praktikara eramateko aukera polita du. Gobernu indarrek bere babesa beharko dutelako programa aurrera ateratzeko, eta beraz, eskuak libre izanik, gobernugintzaren eztabaida politiko-ideologikoak lideratu ditzakeelako. Eta bestetik, gobernu ardurarik gabe, kalean egin beharreko lan politikoan indarrak biderkatzeko aukerak izango dituelako. •

EH Bilduk sarritan erabili du «hanka bat instituzioetan eta beste bat kalean» lema; bada, datozen lau urteetan praktikara eramateko aukera polita du

{ analisia } **Nuria Bigas Formatie**

«Femvertising»: publizitatean emakumea ahalduntzeak saldu egiten du

Publizitate iragarrien %75ean emakumeak agertzen dira, baina %6an baino ez dira botere gunetan irudikatzen. Bi sexuak agertzen direnean, gizonak estatus nabarmenagoa izateko %38 aukera gehiago dituzte, Kantar merkatu ikerketarako konpainiaren AdReaction Getting Gender Right azterketaren ara-

Publizitateak genero estereotipoak erabiltzen ditu; hala ere, emakumeak ahalduntzen dituen publizitatea errentagarriagoa dela konturatu dira marka asko.

bera. «Hori gizartearen ikuskerareal eta patriarkal bati dagokio; horren arabera, emakumezkoak botere eremuetan ordezkapen txikiagoa du eta, modu naturalean, errealitate hori islatu eta emakumeak baliore edo autoritate hori ordezkadezakeela ezkututzen du publizitateak», dio Ana Bernal-Triviño UOC Kataluniako Unibertsitate Irekiko Informazio eta Komunikazio Zientzia Ikerketetako irakasleak.

Egoera hori dela-eta, Erresuma Batuek eta beste herrialde batzuek publizitateko genero estereotipoak debekatzendituen lege bat abiatu dute. Herrialde anglosaxoikopublizitateaz arduratzen den erakundeak (Advertising Standards Authority) hainbat topikokontrolatzea erabaki du, hala nola haurren farde-lak aldatzen ez dakiten gizonak, autoa aparkatzen ez dakiten emakumezkoak edo gizonaren geldotasunaren ondoan etxeko garbiketarik arduratutakoak. Joan den abenduan onartuta eta sei hilabeteko moldaera-aldi batekin, publizitatea egin nahi duten enpresek ezingo dute genero estereotiporik erabili, ez emakumeekikoak, ez gizonekikoak.

Arau horrek beste hainbat iragarkitan ere izango du eragina; esate baterako, itxura eta



Publizitateak genero estereotipoak erabiltzen ditu. Jonas Lee | Unsplash

Legedia

Erresuma Batuak eta beste herrialde batzuek genero estereotipoak debekatzeko legeak abiatu dituzte. Besteak beste, publizitatea egin nahi duten enpresek ezingo dute genero estereotiporik erabili, ez emakumeekikoak, ez gizonekikoak

arrakasta profesional edo soziala lotzen dituztenetan, neskatilei eta mutikoei ezauzgarri estereotipatuak esleitzen dizkietenetan edo gizonei barre egiten dietenenetan emakumeen rolari lotu izan zaizkion eginkizunetan aritzeagatik, hala nola haurrak garbitzeagatik edo zaintzen txarrak izateagatik. «Horrelako ekimenek *femvertising* delakoari garrantzi handia ematen diote», dio UOCko Informazio eta Komunikazio Zientzia Ikerketetako irakasle Silvia Siverak.

Femvertising izendapena emakumeak eta neskatilak ahalduntzen dituen publizitateari dagokio. Ikerketa baten arabera, publizitatean emakumearen irudikapen positiboek onuragarriak dira markentzat, bezeroak fidelizatu eta litezkeen kontsumitzaileen arreta erakartzen baitute. Galdetutakoen %52k jakinarazi zuten erositako produktuaren markak emakumeak nola erakusten zituen atsegin zutelako erosi

zutela, eta %51k genero oztopoak hausten laguntzen dutela iritzi zioten. Ildo horretan lan egiten duten enpresetako bat Dove da. «Egiazko edertasuna» kanpainarekin bere salmentak emendatzea lortu zuen, 2.500 milioi dolarretik 4.000 milioira pasatuta.

Erresuma Batuak beste zenbait herrialdek lehenago egin zutenari jarraitu dio: Belgika, Estatu frantsesa, Finlandia, Grezia, Norvegia (1978tik iragarki sexistak debekatzen ditu lege baten bidez), Hegoafrika edo India. Estatu espainoleko Publizitate Lege Orokorrak iragarki baztertzailak etetea eta zuzentzea aurreikusten du, baina, aldiz, ez zigortzea.

Pentsaera aldaketa? Egintza oportunistak?

Generoa modu orekatuan erabiltzen duten markak askoz marka balio handiagoa sortzen dute, Kantar konpainiaren arabera. Horri dago-



Aspaldikoa da publizitateak emakumeei ematen dien trataeraren salaketa. Irudian, publizitate sexistaren aurkako protesta bat Andoaingen. Imanol OTEGI | FOKU

kionez, Bernal-Tiviñok uste du «M8 mugimenduak mugargi bat ezarri» zuela, eta enpresek abiapuntu hori errentagarri egin nahi dutela. «Orain balio horiek errentagarri gertatu zaizkie, eta irudi ona ematen diete; lehen, ez».

Gillette etxearen «Oso gizona izan beharra dago» azken kanpainak esate baterako, buelta eman dio gizonen irudi estereotipatuari, «gizon mota» eta maskulinitasun berriak onartuz. «Horrelako

kanpainak goraipatu ditzakegu, baina denborarekin baino ez dugu jakingo pentsaera korporatiboaren benetako aldaketa den edo egintza oportunistak. Hemendik aurrera genero ikuspegiarekin sendo eta koherente badira eta konpainiaren DNAn inokulatzen badute, euren komunikazioan ez dago zertan hausturirik izan», dio Siverak.

Emakumeak bezala, beste gizatalde batzuk ere ez daude nahikoa ordezkatuta, LGTBI

kolektiboa kasu. Alor horretan, genero arazoa modu binarioan tratatzen da publizitatean. «Gero eta genero irudikapen irekiago eta askotarikoagoak dituzten iragarriak izan arren, sektore kontserbadoreenen erreakzioa ere gero eta bortitzagoa da», azaldu du Siverak. Horren adibide da LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Egunaren harira Manuela Carmenak zuzendutako Madrileko udalbatzak sustatutako iragarkiarekin gertatutakoa. Bi amona lesbiana zituen protagonista, eta LGTBI ekintzaileak omendu nahi zituen, kolektiboaren aldarrikapena ospatzea ahalbidetzeagatik. Kanpainak gobernu taldeak berak zati bat zentsuratzerainoko polemika sortu zuen. «Berdintasunaren aldeko borroka gizarte osoaren borroka den ideia berresten du kasu horrek, eta publizitateak, zalantzarik gabe, lagundu dezake, uzten baldin badiote», azaldu du Siverak.

Gizarte sexista, publizitate estereotipatua

«Publizitateak, mintzatzen zaion gizartearen erretratuak egiten ditu, horretara entzuleria identifikatuta eta ustez bere bizi estilo, motibazio eta beharrei dagozkien produktu edo zerbitzuak kontsumitzera deituta senti-



tzen baita», dio Siverak. «Egiazko bizitzako botere guneetan emakume gutxi dagoenez, teknikoki logikoa da publizitatean ere gutxi agertzea», gaineratu du. Izan ere, mundu osoko zuzendaritza kargu nagusien %4,9 baino ez daude emakumeen esku, hogeitik bat alegia, «Route to the Top 2018» ikerketaren arabera. Estatu espainolaren kasuan, %2,8.

Kantarren ikerketak aztertutako iragarkien %62 emakume publiko objektibo bati bideratuta zeuden, genero estereotipo klasikoei jarraituta. Aztertutakoaren arabera, haurtxoentzako eta arropak edo etxea garbitzeko produktuen gaineko iragarkien %98 emakumeei bideratuta daude. «Estereotipoek mezuak sinplifikatu eta

Botere guneetan emakume gutxi dagoenez, teknikoki logikoa da publizitatean ere gutxi agertzea, baina horrek gune horiek ordezkatzeko haien gaitasuna ezkututzen du. GAUR8

Markak

Zenbait konpainiak maskulinitasun berriak eta besteak beste LGTBI kolektiboa aurkeztearen aldeko apustua egin dute. Ana Bernal-Triviño UOcko irakaslearen ustez, «M8 mugimenduak ezarritako mugarria» errentagarri egin nahi dute enpresek

berehala ulertzen laguntzen dute, horregatik erabiltzen dira. Denborak eta espazioak mugatuta daude, eta urrea balio dute», adierazi du Siverak, publizitatean aditua eta UOcko GAME taldeko ikertzaile ere badenak. Marka asko publizitatea emakumezkoei orientatzen saiatzen dira, etxeko erosle nagusiak baitira; horregatik, emakumeak maizago agertzen dira iragarkietan. Hala ere, ikerketaren arabera, eros-

teko erabakiak bikoteek gero eta partekatuagoak dira. «Harmarkadetan, emakumearen estereotipo sinplista eta mugatzaile bat baliatu izan da. Anakroniko eta diskriminatzailea da, eta emakumeenganako desberdinkeriak betikotzen ditu», nabarmendu du Siverak. «Denon artean aldatu beharra dago, publizitateetik eta eremu guztietatik, kultura patroiek ez lukete-etaldaezinak izan beharko», bukatu du adituak.



iRRITZIA:



Alai
ZUBIMENDI



> Gurpil aulkia erosteko laguntzarik gabe



UNA TARTA POR JANIRE

Gurpil aulki elektrikoa eskuratzeko beharrezkoa zuen dirulaguntza ukatu dio Lakuak Janire Mora Gasteizko haurrari, familiak sare sozialetan salatu duenez. Neskatoaren ama Leire Retuertok “Alea” aldizkariari



azaldu zionez, Janirek egokitutako aulki elektrikoa erabiltzeko ez duela gaitasunik eta laguntza beharrezkoa duela esan du Lakuako Osasun Sailak ezezkoa argudiatzeko. Janireren amaren iritziz, «lotsaga-

rria» da argudioa, alabak horrelako aulki batean zortzi urte baino gehiago baitaramatza. Tetraparesia espastikoa du Janire Morak, eta egokitutako aulki elektrikoa behar du bere kabuz mugitu ahal izateko. Zortzi urtean erabili duen aulkia txiki geratu zaio, eta beharrezkoa du berri bat. 18.000 bat euro balio du aulki berriak eta, Retuertok gogoratu duenez, 6.000 euro falta zaizkie kopuru hori lortzeko. «Hilabete bat baino gehiago eman dugu dirulaguntzaren zain, eta, azkenean, hau; lotsagarria da, baina ez dugu amore emango», esan du amak. Duela bost bat urte arazo bera izan zuten aulkiarekin, Osasun Sailak laguntzarik ez ziela emango esan zielako hasieran. Epaitegietara jo eta arrazioia eman zieten azkenik.

Dirulaguntzaren ekarpenaz gainera, beharrezko dirua lortzeko hainbat jarduera antolatu dituzte “Una tarta por Janire” ekimenaren eskutik. Joan den hilean, esaterako, Gorbeiora txango bat egin zuten eta 1.000 euro bildu zituzten.



> «Monsterbox», adiskidetasunaren balioa

“Monsterbox” film laburra edozeinen adimen emozionala garatzeko ezin aproposagoa da. Filmeko protagonistak gizon zahar bat eta neskato bat dira, eta haien artean sortutako den adiskidetasun istorioa kontatzen du. Belaunaldi arteko adiskidetasun istorio bat. Gizon zahar bakarti bat, bere landareak maitasun eta adore



handiz zaintzen dituen, eta beti bere lagun bihurriek lagunduta dabilen neskato ipurtarin bat adiskidetasun eder batek elkartuko ditu. Film laburraren egileak Ludovic Gavillet, Derya Kocaurlu, Lucas Hudson eta Colin Jean-Saunier dira. Ikus-entzunezko lan hau euren karrera amaierako proiektua dute.



> Eibar futbol taldea, Inui eta «goresmena»

Eibar futbol taldeko zale askok espero zuten bezala, taldeak Takashi Inui japoniarraren itzulera iragarri zuen joan den asteen. Horretarako, Dorae-monon abestia baliatu zuen sareetan, “Gora eta gora beti...” hitz ezagunak, hain zuzen, giroa berotzeko. Baina iragarpenak ez zuen taldeko zaleen arreta bakarrik bereganatu. Izan ere, Estatu espainoleko ehunka kontuk abestiko hitz



horiek «terrorismoa gorestea- rekin» nahastu eta txioa Poliziaren aurrean salatu zuten. Ehunka kontu horien hanka-sartzea zahar bezain aspergarria da: “eta” juntagailua eta “terrorismoa goratzea” nahastu izana. Espainiar Polizia eta Guardia Zibila ohartarazi izanak borobildu zuen zentzugabekeria. Txioaren gaineko iruzkinak benetan ikusgarriak izan ziren.

> Euskal dantzen eta Irlandako dantzen arteko lehia

Sare sozialetan arrakasta itzela izan du Beskoitzeko Oinak Arin eta Gothery School of Dancing taldeen ikuskizun bategi. Bertan euskal dantzen eta Irlandako dantzen arteko lehia ikusgai dago. “Terre et cote basques” izena duen Facebook profilak zabaldu zuen bideoa iragan ostegunean. Bertan, Beskoitzeko Oinak Arin eta Gothery School of Dancing taldeen ikuskizuna jasotzen da eta arrakasta itzela izan du sare sozialetan. Pentsa,



lau egunean hamarnaka iruzkin jaso ditu eta bideoa ia 2.300 aldiz partekatu dute. Soinak Arin taldeak 6 urtetik gorako dantzariak biltzen ditu; txikienek dantza eta musika tradizionala ikasten dute, eta, 15 urtetik gorakoek, Lapurdiko inauteri-ohituretan parte hartzen dute. Izan ere, ohitura horiek talde horrek berreskuratu zituen Beskoitzen 1983an. Ikuskizunetan Euskal Herriko zazpi probintzietako dantzak erakusten dituzte.



> Palestinako emakumeak, erresistentziaren begiak

Uztailaren 12an iritsi zen Aska-penako Brigada Feminista Palestinara eta bertatik igorri dute emakumeek Palestinan pairatzen duten zapalkuntza aletzen duen lehen kronika. Tokian tokiko okupazioaren aurrean antolatutako borrokan emakumeen antolakuntzak garrantzi berezia hartzen du, gizartea eraldatzeko duen gaita-



sunagatik. Orain arte ikusi eta ikasitakoaren hurbilpen bat egin du brigadak. Hango egoera politiko eta sozioekonomiko gogorraren ondorioz, antolakuntza, borroka eta erresistentzia gune indartsua da Aida errefuxiatu gunea. Emakume aritu baten ahotik jaso dituzte borrokaren gazi-gozaok. Kronika osoa, NAIZ+ atarian.




Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Kosmosa ezagutzeko teleskopioak eta kameleoia

Azken hilabetea gaueko zerua teleskopioarekin zelatatzen eman dudanean jakin dut aurkikuntza berri bi eman direla astronomiaren munduan.

Saturnoren eraztunak ikustearekin lurtarrok aho bete hortz gelditzen garen bitartean, teleskopio-tzarrak darabiltzatenek planeten formazioan “kate-begi” galdutzat ematen ziren planeta motak aurkitu dituzte lehen aldiz. Alegia, Merkurio, Artizarra, Marte eta Lurra bezain planeta txiki eta arrokatuen eta Saturno, Jupiter, Urano eta Neptuno bezalako handi eta gaseosoen arteko espezie ezezagunak aurkitu dituztela TOI-270 izenez bataiatu duten sisteman. Zehazki, Lurra baina apur bat handiagoa den planeta arrokatu bat eta Lurraren tamaina bikoitza duten planeta gaseoso bi aurkitu dituzte NASAk exoplanetak bilatzeko pasa den urtean orbitan jarri zuen Tess sateliteko teleskopioarekin.

Aurreko batean aipatzen nuenez, teknika fintzeak ezagutza eraldatzeko datuak eskaintzen dizkigu, teleskopioaren adibidea paradigmaticoa izanik –Galileo eta Hubble–. Baina datuok interpretatu egin behar dira eta horretarako teoriak eraiki behar dira. Einsteinek Erlatibitatearen Teoriarekin gaingitu zuen Newtonen grabitateaz postulaturikoa, eta, egun kosmosa interpretatzeko teoria nagusia den arren, hipotesi alternatibok ere badira oraindik arras ezezaguna zaigun unibertsoa eta bere espantsio azeleratua esplikatzeke. Horietako bat da Kameleoien Teoria, zeinaren arabera grabitatea aldakorra litzatekeen ingurunearen arabera, kameleoien azala bezala. Hots, Erlatibitatearen Teoria Orokorrak grabitatea aldatzen ez dela postulatu duen



Teoria batzuen arabera, kameleoi partikulak inguruko eremu grabitatoriora moldatzen dira. GAUR8

bitartean, teoria alternatibo honen aburuz kameleoi izeneko partikula eskalar hipotetikoak existituko lirateke, zeintzuen masa inguruko eremuen arabera moldatuko litzatekeen: galaxia-arteko espazioan masa txikia izanik eta beren masa handituz eremu grabitatorio batera hurbiltzean. Unibertsoaren espantsioaren azelerazioaren eragile jotzen den energia ilunaren partikula izan liteke kameleoia, baina ez da noski momentuz horren ebidentziarik. Partikularekin batera, bosgarren indar bat dagoela –nuklear sendoa, ahula, elektromagnetikoa eta grabitazionalaz gain– postulatu du Kameleoien Teoriak, baina berriz ere, beronen frogak gorputzik ez deneko galaxia-arteko espazio urrunean topatu beharko lirateke.

Teoria honen bideragarritasuna indartu berri da hilabete hasieran «Nature Astronomy» aldizkariak argitaraturiko ikerketak frogatu berri baitu Esne Bidearen moduko galaxiak interpretatzeko balio duela Kameleoien Teoriak, eta ez soilik Eguzki sistemarako, orain arte uste zenez. Alabaina, datu sendoak behar dira oraindik teoria hau indartzeko eta Australian eta Hegoafrikan lekututa 2020an lanean hasiko den SKA (Square Kilometre Array) munduko irrati-teleskopio handiena izango denak babestu beharko ditu Durhameko (Erresuma Batua) fisikarien aurkikuntzak. Ikusteko dago, beraz, teknika fintzeak teoriaren gaingipena ekarriko ote duen berriro... Bien bitartean, teleskopioaz, kameleoiaz, edo begi soilaz, gozatu gaueko zeruaz! •

{ koaderno } Iker Barandiaran

Ezker txarrekoak

Azken hauteskunde uztan –orain oso denbora gutxi–, kanpaina egunetan, Madrilen izan nintzen egun batzuk pasatzen; eta nahikoa lan izan nuen seme-ei argazki handi eta ugarietan agertzen ziren pertsonaiak (eta haien gainean idatzitakoak) nortzuk eta zer ziren azaltzen. Ez nuen mitinik ez halakorik aurkitu –eskerrak!–, baina oso aberasgarria izan zen egun haietan pisukide izan nintuenekin egin ahal izan nuen jokoa. Horietako gehienek beraien posizio politikoak nahiko argi bazituzten ere, bazeuden bi zalantzati; batek oro har politikatik paso egiten duela zioen eta bestea gaur egungo alderdien panoraman apur bat galduta zegoen. Horien bien zalantzak argitu nahi izan genituen aplikazio baten bitartez, zeinek galdera zehatz batzuen laguntzarekin ondorioztatzen duen zein alderdi politiko egokitzen zaizun gehien. Jakina, galdera horiek hizpide, eztabaida oso interesgarri eta mamitsuak sortu ziren gure artean: kataluniar independentista bat, Cadizeko podemita bat, Ciudadanosen aldeko bat, ni neu... eta galdetegia erantzun izanaren ondorioz Podemosetik hurbil dagoen euskaldun erbesteratua eta EH Bildu aukera hurbilena duen madrildar peto-peto eta orain harritua ere badena.

Madrildik eta Espainiatik desberdin ikusten gaituzte oraindik eta badirudi ikusiko gaituztela luzaroan (izan) duten zaparrada mediatikoaren eraginez; eta aurrerantzean bere burua Arnaldori botoa ematen irudikatu behar zuen madrildarra zur eta lur dago oraindik sinistu ezinik, baina, era berean, EH Bildu bere horretan zer den argiago arakatzeko jakin-minez. Ez dago guztia galduta! Bestalde, Podemosen jarraitzaile sutsua den andaluziarrak, irekia eta aurrerakoia dena, ezin du oraindik EH Bildurekin elkarlanean sinistu; handiegia da luzaroan jaso duen karga eta, nahiz eta horren kontrako argumentu borobilik ez izan, badago zerbait bere barruan oraindik aukera hori baimentzen ez diona. Era berean, zirkuluen zalea jakitun da koalizio moreak Kataluniako zein Euskal Herriko autodeterminazio eska-

eren aurrean erakutsitako jarrera epelak, besteak beste, gainbeheran daramala Espainiako Estatuak izan ahal zezakeen aspaldi merezitako eta amestutako aldaketa.

M-15aren ostean penintsulan sortutako ilusio, in-dar metaketa eta aldaketa aukerak desagertzen doaz zoritxarrez, abangoardia (behingoz) hartu ahal zezakeen ezkerre banatu, beldurtu, bigundu eta horren jarraitzaileak nabarmen ilusioa galduta daudelako. Euskal Herriak eta Kataluniak (eta agian egunen batean Galiziak) beren bide propioa egin beharko dute bai ala bai; izan ere, ikusitakoak ikusita, luzaroan ez da Espainiara demokrazia itzuliko (noiz izan zen hemen azkenekoz?) eta, ondorioz, bi herriok luzaroan ez dute Espainia bidelagun izango. Espainiako Estatu-ko ezkerre ahul dago erabat, dituen konplexuengatik, interes partikularren aldeko borroka hutsalengatik eta eskumako –edo neoliberalismoaren– diskurtsoa erabat barneratuta daukalako.

Hau guztia ikusita, oso gustura eta interes handiz irakurri ditut azkenaldian argitaratutako bi liburu, penintsulako ezkerrearen gaineko hausnarketa eta auto-kritika egiten dutenak. Batetik, Sergio Gregori Marugan madrildar gazteak urteetan ezkerreko pentsalari, militante eta politikariei egindako elkar-rrizketa ugariren bilduma. Txalapartak argitaratutako “Tomar partido. Conversaciones con la izquierda transformadora” liburu mardula, hain zuzen ere. Tartean, bi euskaldun handi ageri dira –Sabino Cuadra Lasarte eta Arnaldo Otegi–. Eta, bestetik, Público, El Salto zein CTXT moduko hedabideetan zabal idazten duen Daniel Bernabe kazetari madrildarrak Akal/A Fondo argitaletxearen bitartez plazaratutako “La trampa de la diversidad. Cómo el neoliberalismo fragmentó la identidad de la clase trabajadora”. Honen esanetan neoliberalismoak sinistarazi digu dibertsitateak, desberdintasunak, duela balioa, hori dela borrokaren iparra eta erreferentea. Hala, hori sinistuta, herritarrak, zapalduak, sakabanatuta gaude erabat eta helburu beraren alde batzea ekin digu. •

Espainiako Estatuko ezkerre ahul dago erabat, dituen konplexuengatik, interes partikularren aldeko borroka hutsalengatik eta neoliberalismoaren diskurtsoa erabat barneratuta duelako

Lau urteko bidea aurreikusia zuen “Beste hitzak/ Other Words» proiektuak. Eta bide horixe bete du asteon. Azken puntadak irailean emango dizkiote egitasmoari.

Europa mailako hizkuntza txiki edota txikituak ikusaraztea, bultzatzea eta beren artean harremanetan jartzea zuen helburu nagusia proiektuak. Donostia Kultura eta Donostia 2016 hasi ziren proiektua josten eta nazioartean beste lau

bazkide izan dituzte: Irlanda, Mazedonia, Eslovenia eta Frisia.

Baina aurreikusitako bidean espero gabekoak ere gertatu dira. Adibidez, Curaçao, Venezuelaren parean den Herbehereen mendeko irlak, parte hartu du proiektuan eta frisiarrek, bertsozariarekin liluratuta, bertso eskolen ideia eraman nahi dute berera.

Esandakoa, aurreikusitakoak bete dira eta espero gabekoak besoak zabalik hartu dituzte; literatura aitzakia, hizkuntza txikietan ari direnek desber-

dintasunetik parekotasunak ikusi dizkiotelako elkarri. Proiektuaren koordinatzaile Imanol Galdosekin errebasatu du GAUR8k bidea.

Donostia 2016aren bueltan sortutako proiektua da.

Donostia 2016aren testuinguruan sortutako proiektua da bai. 2015eko urrian, Donostia Kulturako hainbatek proiektua prestatu eta European aurkeztu zen. Lau urteko ibilbidea aurreikusia zuen proiektuak eta, Donostia 2016ko egitura bertan behera geratzean, beste

«Europaren ahultasunez hitz egiten den garaiotan, era honetako programak badira Europa egiteko modu bat. Finean, estatu handi batzuk kenduta, European denok gara herri txikiak»

norbaitek eutsi behar zion proiektuari. Horregatik sartu zen nagusiki Donostia Kultura, egitasmoak jarraipena behar zuelako 2016tik harago.

Hizkuntza txikien eta gutxituen bozgorailu izateko boka-zioarekin sortu al zen?

Baietz esango nuke. Proiektuan parte hartzen duten bost errealitateak oso desberdinak dira, baita egitura politiko aldetik ere.

Adibidez, Irlanda oso kasu paradigmatikoa da. Estatu bat da –parte bat behintzat–, iden-



«Egunotan beharrezkoa da aniztasuna aldarrikatzea, ez modu sinbolikoan, modu praktikoan baizik»

titate handiko herria da, baina hizkuntzaren aldeko hautua ez zuten egin. Urratsak ematen ari dira, baina garbi esan beharra dago Irlandan une honetan Euskal Herrian duela 50 urte genuen egoera paretsuan daudela hizkuntzari dagokionez.

Gure krisi, ahulgune eta eraso guztiak ahaztu gabe, irlandarrei edo frisiarrei esaten diegunean gure gazteek unibertsitatean euskaraz ikasten dutela, harrituta geratzen dira. Eta egia esan, proiektuan parte hartu dugun bost errealitateetan, euskararena da aurreratuen dagoena.

Frisieraren arrastorik ere ez dago unibertsitatean eta lehen eta bigarren hezkuntzako eskoletan ere apenas ordu gutxi batzuk eskaintzen dizkiote. Baina nederlandera bera ez dago askoz hobe Herbehereetan. Badira zenbait herrialde oso aurreratu, bertako hizkuntza nazionala bigarren lerroan utzi eta ingelesaren aldeko hautua egin dutenak.

Esloveniaren kasuan, estatu bat da, biztanle kopuruan Euskal Herriaren parekoa, eta eslovenieraren ofizialtasuna nahiko errotuta daukate. Mazedonian ere antzeko.

Hizkuntza txikietan aritzen diren idazleentzat sorkuntza-egonaldiak. Hori zen programaren ardatz nagusia.

Bai, eta hori erabat bete da. Nik uste dut aukera ikaragarri bat izan dela hizkuntza txikiak beren eremutik kanpo ezagutzera emateko. Irlandako ordezkariak esan zuen, eta ni harritu egin nintzen, gaelikoz idazten duten idazleek nazioartean egonaldiak egiteko izan duten lehen aukera izan dela. Horrek zalantzarik gabe balio handia dauka.

IMANOL GALDOS

«BESTE HITZAK/OTHER WORDS» EKIMENAREN KOORDINATZAILE NAGUSIA

Euskal Herria, Mazedonia, Irlanda, Eslovenia eta Frisia. Errealitate oso desberdinak bizi dituzten bost herrialde, parekotasun garrantzitsu batekin: guztiek daukate bultzatu eta babestu beharreko hizkuntza txiki edota gutxitu bat. Amaitzean den proiektuak harilkatu ditu guztiak eta bidean baita besteren bat ere.

Amagoia Mujika Telleria

Nik uste dut proiektu honek balio izan duela norberaren esperientzia kanporatzeko, horren berri emateko, eta, era berean, besteen errealitateaz jabetzeko. Horrek ikaragarritzko balioa dauka; Mazedonian edota Eslovenian izan diren euskal idazleek enbaxadore lana egin dute eta hori garrantzitsua da.

Horrez gain, freskatzeko aukera izan da, arnasa hartzeko eta ahalduntzeko; gure hizkuntza txikiak gure herritik kanpo ere balio dutela ikusteko aukera.

Errealitate oso desberdinak ditugu; akademikoki, intelektualki, ekonomikoki, politikoki... baina elkarren beharra daukagu zalantzarik gabe.

Europaren ahultasunez hitz egiten den garaiotan, hau bada Europa egiteko modu bat. Finean, estatu handi batzuk kenduta, European denok gara herri txikiak.

Herri txikiak eta hizkuntza txikiak kabitzeko moduko European sinisten duzu beraz. Ez dago beste aukerarik. Momentu honetan mundu osoan bi ikuspegik talka egiten dute. Bat, homogeneoa, etnizitatei eta aniztasunari ateak ixten dizkiona; AEBetan, Brasilen eta Europako toki askotan ikusten ari garena.

Nik adibide bezala jartzen dut Boisen gertatu dena. Ondo ezagutzen dut bertako errealitatea eta lotura handia daukat Idahoko hiriburuarekin. Boise State unibertsitateko errektore berriak kargu hartu zuen duela bi aste: Marlene Tromp. Idaho oso estatu errepublikano eta eskuindarra da. Parlamentuko gehiengo errepublikanoak Boiseko unibertsitateko errektoreari bidali dion lehen eskaera honakoa izan da: aniz-

tasunaren eta gutxiengoaren alde martxan dauden programa guztiak bertan behera utzi ditzala.

Boise State Universityk urtean programa ugari jarri ditu martxan munduan zeharreko jendea bertara erakartzeko; afrikarrak, nepaldarrak... Programa horiei esker, Boiseko unibertsitateak ahots desberdineko ikasleak bildu ditu urte askoan. Eta orain zer eta bikaintasun akademikoari aniztasunaren aldeko programa horiek kalte egiten omen diote. Gezurra galanta. Boisen sekulako iskanbila sortu da kontu horrekin.

Horrekin esan nahi dudana da, Boisen, Espainian edo Brasilen berdin, hori daukagula jokoan. Eta Other Words programa testuinguru horretan kokatu behar da. Literatura arloan daukan balioaz gain, mundu mailako testuinguru horretan daukan balioa nabarmendu nahiko nuke.

Euskararen kasuan, aurrerapauso handiak eman ditugun arren, dena ez daukagu irabazita. Guri ere esaten dizkigute bikaintasun akademikoaren kontu horiek. Mamu horiek denak hor daude eta aniztasuna aldarrikatzea beharrezkoa da egunotan, ez modu sinbolikoan, modu praktikoan baizik. Kontserbadurismoak eta gaizki ulertutako pragmatismoak kalte handia egiten diote aniztasunari. Hizkuntza handien edota menderatzaileen aurrean, lortu dugunari eutsi egin behar diogu. Euskaldunak gaizki egongo gara, baina lortu dugun hori ez dago irabazita.

Gatozen proiektura. Bost bazkide hasi ziren, baina bidean batu zen seigarrena.

Bai. Abiatu ginenean bost bazkide ginen eta bete beharreko

egutegi eta planifikazio bat geneukan. Baina, zorionez, eta nabarmendu beharrekoa iruditzen zait, proiektuak gero aurreikusita ez zeuden beste fruitu batzuk eman ditu.

Lehena, Frisian. Landa ingurune batean kokatutako herria da eta hizkuntzaren garapena apal samarra da. Baina iruditzen zait beraientzat programan sartzea berpizkunde bat izan dela eta emozionalki indartu egin dituela. Hona etorri zen idazleetako batek, Bart Kingmak, oso ondo irakurri zuen Euskal Herria. Oso pertsona kartsua da eta bertsolaritzarekin maitemindu dela esan daiteke. Horrela, proiektu bat otu zitzaion. Frisiako telebista nazionaleko lantalde bat etorri eta bertsolaritzari buruzko dokumental bat ekoitzi zuen. Gero, lan hori Frisiako telebistan eta Herbehereetako telebista nazionalan eman zuten. Eta bertsolaritzatik abiatuta, tesi bat garatu dute: bertso eskolak eredu hartuta, posible ote da Frisian bertsolaritzaren antzeko zerbait bul-tzatzea? Horretan ari dira.

Bigarrenik, bildts hizkuntzarena aipatuko nuke. Other Words programan aurreikusita zegoen herrialde bakoitzak idazle bat eta herrialde bat parte hartzera gonbidatzea. Herbehereetan hizkuntza txikiak daude eta horietako bat da bildts hizkuntza, eskualde txiki batean gutxi batzuk egiten dutena. 5.000 biztanle ditu eta arriskuan dago. Gerard de Jong “Bildtse Post” egunkariko zuzendaria etorri zen Euskal Herrira eta bete-betea sartu zen bertako errealitatean. Bere hitzetan, programari esker bildts hizkuntzaren errealitatea bistaratu ahal izan da. Herbehereetan bertan jende askok ez zekien hizkuntza ho-

«Hizkuntza txikien alde lan egin beharra dago; inoiz baino behar eta premia handiagoa dago aniztasunaren aldeko bideari eusteko, eraso eta arrisku ugari dauzkagulako»



rreren berri. Eta, gainera, Gerard de Jong Pasai Donibanen zegoen bitartean –Euskal Herriko egonaldiak bertan izan dira–, Herbehereetako irrati publikoko kazetari bat egon zen hemen astebetean eta haren jarraipena egin zuen. Gero, saio sorta hori irrati publikoan eskaini zuten egun dezentetan.


Eta, hirugarrena, Curaçao. Donostiako taberna batean Curaçao emakume bat eza-gutu nuen. Venezuelako iparraldean dago, garai batean

“Holandarren Antillak” deitzen genituen uharte horietako bat da. Herbehereen mende dago Curaçao eta bi hizkuntza ofizial daude bertan: nederlandera eta papiamentoa. Papiamentoa portugesa, nederlandera, espainiera eta Afrikako hizkuntzen nahasketa bat da. Hizkuntza txikia da, baina ofiziala.

Hizketan hasi eta okurritu zitzaigun ideia ona zela Curaçao idazle batek nazioarteko egonaldi bat egitea Other

Words proiektuaren baitan. Baldintzak betetzen ziren, Curaçaoak hiritar europarrak direlako –Herbehereen mende dago– eta horrela bidali genuen bertako idazle bat Irlandara egonaldia egitera.

Sekulakoa izan zen. Curaçao benetan harrera ona izan zuen proiektuak. Deialdia oso lehiakorra eta arrakastatsua izan zen –nabarmendu beharra dago idazleen deialdiak horrela izan direla herrialde guzti-guztietan– eta proiektuak



Jon URBE | FOKU

oihartzun garrantzitsua izan du bertako komunikabideetan. Beste kasu batzuetan bezala, papiamentoa darabilen idazle batek nazioartean egonaldia egiteko izan duen lehen aukera izan da.

Eta espero gabe, Kariberaino.

Bai, eta horrek aukera ematen digu begirada altxatu eta han ere gure erronka berdintsuak dituztela konturatzeko. Curaçao ingelesak eta espainierak sekulako indarra daukate eta testuinguru horretan mugitu behar du papiamentoa. Han ere badira erasoak, ahulguneak, elkarbizitza arazoak...

Denok gara txikiak eta denok daukagu elkarren beharra, bai mundu globalizatu batean bizi garelako eta baita joera homogeneizatzailerak gero eta nabarmenagoak direlako ere.

Lau urteko programa bete da eta amaitu da. Aurrera begira, zer?

Ofizialki, programa honek bukaera bat dauka, oraintxe. Baina, inolako zalantzarik gabe, guk jarraipena eman nahiko genioke. Izan ere, ez gaude eskuak jaitsita eta zain egoteko moduan. Jarraipena beharko luke eta desiragarria izango litzateke. Badago European berriro ere eskaera bat egiteko aukera. Baina horrek aurrera egingo ez balu, oraingoan bazkide izan garenok eta gerora interesarekin gerturatu zaizkigun beste herri batzuek –Eskozia, esaterako– bidea egiteko modua izan dezakegu. Ikusiko da.

Baina hizkuntza txikien alde lan egin beharra dago; inoiz baino behar eta premia handiagoa dago aniztasunaren aldeko bideari eusteko, eraso eta arrisku ugari dauzkagulako.

Mugimenduan

**Maider Iantzi
Goienetxe**

Erritmo biziko ikasturte baten ondotik, oporrak mantsotzeko eta lasaitzeko aukera izan daitezke. Baina abuztua iritsi da eta mugimendua txikitu beharrean handitzen ari dela ematen du. Hasi dira ordaintokian ilarak eta borrokak, maletadun kotxe eta karabanen artean ezin kabitu. Gero ezin aparkatu. Ez dut buelta gehiago emateko gogorik eta urrun utzi dut autoa (10 minutura!). Marmarka egin dut bidea oinez, gaizki aparkatzen duten gidariak kritikatzeko. «Ze nazka, zenbat kotxe!», erratearekin batera bat gehiago naizela ohartuz, inoiz eginen ez nukeena egiten duena gainera: gero eta toki

gehiagotara joan autoan eta atean aparkatzen saiatu. Jaitsi naiz lau gurutetatik eta oinezko bat naiz orain. Eta halere jendearekin tupust egiten dut. Ze amorrua ematen didaten erdian poste bat bezala gelditzen direnek! Eta espaloi osoa hartzen dutenek solaserako! Zerua ere marra zuriz betea dago. Uztailaren 25ean inoiz baino hegaldi gehiago zenbatu zituzten: 24 ordutan 230.000. FlightRadar24 plataformak egiten ditu estatistika hauek, hegaldi komertzialak, jet pribatuak, hegazkin pertsonalak eta bidaia turistikoak barne hartuz, eta denbora gutxian errekor ho-

ri gaintitzea ez dela harritzekoa izanen azaldu du bertako komunikazio ardura-dunak. Ipar hemisferioko jende ugari-
mapako puntu bat aukeratu eta abioia hartzen dugu, hego hemisferioko biztanle aunitzek gerratik eta gosetik atera ezin duten bitartean. Itxarongeletan ere mugimendua dago: mugikorra, gurutzegramak, telebis-
ta, musika, eta dena batera. Eta halere aspertuta. Badirudi bertzerik gabe ego-
ten ahanzten ari zaigula. Etxalarko aita-
txik eta amatxik bertan egin zuten bizi-
tza; urrunen Donostiara atera ziren. Horra itzultzea ere ez da kontua, baina gelditzen ahal gara. •

Donostia galbidean

**Xabier Mikel
Errekondo**

Donostiari betaurrekoak jantzi dizkiote. Ez hobe ikusteko bai-na. Ispiludun eguzkitako betau-
rrekoak, *glamour* apartekoa emango diotelakoan, kanpotarren atse-
ginerako eta salgarriago egiteko. Baina, zer saldu eta nori? Berdin du. Saldu, kos-
ta ahala kosta. Kostako herri dotorea da Donostia, erakargarria zalantzarik gabe. Badu historia bikaina, arkitektura zora-
garritzko eraikinak, pintxoak, bazter anitz eta bakarrak... auzoak, auzotarrak eta bizimoduak, baina, norantz doa? Badirudi agintariak eguzkitako betau-
rrekoak jantzita nazioarteari begira bizi

direla eta turismo oldeak erakartzeko irrikaz dituztela politikak diseinatzen, hiritarren beharrei erantzuteko ordez. Turismoak aberastasuna dakar, zalan-
tzarik ez. Norentzat ordea? Arduradun politikoen nahia hotelak eta pisuak eskaintzea da turista oldeak erakartzeko, baina turista espezie inba-
sorea da (turistok ere...), eta, sortzen di-
tuen kalteak ekiditeko neurriak hartu ezean, hamarkada bitan Donostia plas-
tikozko hiria bilakatuko da, postal hu-
tsa. Mamirik gabe, azala baino ez. Giro honetan, Woody Allenen etorre-
rak eztabaida piztea ulergarria da, izan

ere, hiriaren etorkizuna eta, batez ere, hiritarrena, arriskuan dago. Nago egoerak okerrera egin aurretik neurri zorrotzak hartu eta hiritarren beharrak bermatu behar direla lehe-
nik, bizimodua eta ohiturak zaindu, fa-
milia kideek bertan jarrai dezaten etxebizitza politika ausartak bultzatu, eta abar. Gainontzean turismo inbasoreak hi-
riak berezkoak dituen xarma eta bizi-
modua apurtu egingo ditu betirako. Adibide garbiena Bartzelona dugu, tu-
rismoaren ohian huts bilakatuta, galbi-
dean jada. •



Garazi Goia - @GaraziGoia
Idazlea

Sinetsi edo ez sinetsi

Testuiguru politikoan ez daukagu aspertzeko denborarik Londresen. Azken hilabeteetako (edo urteetako) gorabeherekin eta parlamentuko kaosarekin gogaituta eta dagoeneko gehiengoa egoera apatiko batean sartuta geundenean, Boris Johnsonek ekarri dizkigu pizgarri batzuk egun gutxi batzuetan.

Gizakiak lehen aldiz Ilargia zapaldu zuela 50 urte bete diren honetan, gertaera horri erreferentzia eginez eta berarengan hain ohikoa den harrokeriarekin «gizakia Ilargira iristeko gai izan bazen, gu Brexita kudeatzeko gai izango gara» esanez hasi zuen eguna Johnsonek. Hori esan eta aurrera. Dena da zilegi, promesek mugak galdu dituzten honetan, guztia posible da, Erresuma Batukak merezi duen etorkizun oparoa lortuko duela dio. Bide batez, ez al dizue honek Donald Trumpen «*we are going to make America great again*» gogorarazten? Amerika hobeago bat lortuko zuen promesa hura. Theresa Mayri egindako erreferentzia bakarrak, hiru urteetan egin ez dituen gauzei buruzkoak dira eta bat-batean salbatzaile bat iritsi dela dirudi. Superheroiaren fikzio ipuinetan bezala.

Parlamentuan lehenengo agerraldia egin zuenean, parlamentuaren inguruko kaleetako kaosak eraginda ondoko auzoetan trafiko ilara handiak sortu ziren. Londres zentroan taxi batean nindoan eta laneko hitzordura ordu erdiko atzerapenez iritsi nintzenean, «Boris lehenengo egunetik arazoak ematen» esanez agurtu ninduten. Hain zuzen ere, bi ikuspegi polarizatu sortu dira edo, hobeto esanda, berretsi dira. Johnsonen harrotasun eta kaitu eiteko jarreraren fan izugarria zara edo bestela erabat gorroto duzu.

Erresuma Batuko inperialismo garaiko garaipenekin eta orduko menperatzaile zireneko urteekin halako zerikusia duela iradokiz, erretorika erromantikoa darabil askotan, bai-

na betiere inteligentzia handiz, taktikoki sortu duen «pertsona» hori erabiliz. Brexit osteko egoera positiboa izango dela sinestarazi nahi digu. Ez dakit zer lortuko duen, baina hasi da erdi-bidean bere alde edo kontra egin zalantzan dauden horiek alienatzen. Diskurtso populista berri batean oinarrituta promesa asko egin ditu lehen bi asteetan. Osasun zerbitzua hobetuko duela. Garraiobideak eta hiri nagusien arteko konexioak ere bai. Hogeita mila polizia gehiago kontratatuko dituela, herrialde seguruagoa izateko. Goiburuetatik haratago informazioa zalantzan jarriko ez duten horiek bere albora eramatea da helburua. Eta jendeak entzun nahi duen hori behin eta berriz errepikatzen ari da. Brexitaren ziurgabetasuna amaitzear dagoela. Erresuma Batua Europatik irtengo dela urriaren 30ean. Horretan ez dago eztabaidarik. Oso garbi utzi du hori. Akordio berri bat lortuko duela eta «akordio-

rik gabeko Brexit bat» Europar Batasunak hala nahi duelako bakarrik izango dela. Europatik kanpo dauden lurraldeekin harremanak sendotzea eta haziera beste lurralde batzuetatik etorriko dela ere tartean botatzen du. Badaezpada. Gauzak berak nahi ez bezala ateratzen badira, munizioa prest edukitzeko.

Kontua da Mayk utzitako erreferentzia edo abiapuntua oso maila baxuan duela eta, tamalez, hori ere bere aldeko du. Egiten duen urrats positibo orok, berdin izango da txikia edo handia izan, bere alde jokatuko du. Garaipen bat bestearen atzetik kontatzen hasteko aproposa. Puzteko beharrik ez duen egoa oraindik gehiago puzteko. Eta bagoaz, berriro ere Ilargira...


Baina errealtatea bestelakoa dela gogorarazten ari zaizkigun beste hamaika adierazle bategatik eta bestetik ateratzen ari dira. Superheroi papera puntu jakin bat arte bakarrik eraman dezake Johnsonek. Eta, kazetari ezagun batek gaur zioen moduan, Boris Johnson ez da Winston Churchill, eta Brexita ez da Bigarren Mundu Gerra. •



Johnson, oilasko etxalde bat bisitatzen asteon. Adrian DENNIS | AFP

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



JULIO ALTADILL | IRUÑEKO UDAL ARTXIBOA

CAPARROSOKO ERROTA, ARGAREN UR-BAZTERREAN

Caparrosoko errota Magdalena auzoan kokatuta zegoen, Arga ibaiaren ur-bazterrean, eta, idatzi batzuetan jasotzen denez, XI. mendekoa da. Garai hartan San Migeleko errota esaten zitzaion eta Magdalenako legenardunen erietxeko jabetza zen. Errota bezala funtzionatu zuen XIX. mendearen erdialdera arte. Gerora, Baionatik etorritako bi industrialarik burdinola bihurtu zuten. XIX. mendearen amaieran, errota zentral elektriko bilakatu zuten. Garai hartan eraiki zuten egunotan oraindik ikus daitekeen tximinia. XX. mendean, zentralaren ondoko eraikin batean, garbitegi publikoa eraiki zuten. Goian ageri den argazkia 1903. urtekoa da. Julio Altadillek egindakoa da, militar ohia, historiagilea eta argazkilari zaletua. Toledon jaioa, txikitatik Iruñean bizi izan zen. Bere argazkietan paisaiak jaso zituen nagusiki, baita senideen eta lagunen erretratuak ere. Bere argazkiekin, besteren artean, "La Avalancha", "La Voz de Navarra" eta "Euskal-Eria" aldizkariekin kolaboratu zuen Altadillek.

GAUR8 ireki gure leihoa

